



Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

Plan Estrategikoa 2018-2022

Plan Estrategikoaren ezarpenaren 2019ko Ebaluazioa eta 2020eko Ekintza Plana

1

**Lehiaren
Euskal
Agintaritza**

3.
or.

2

**Plan
Estrategikoa
2018-2022**

4.
or.

3

**Misioa eta
ikuskerak**

5. or.

4

**Helburuak eta
jardun-ildo
estrategikoak**

6.
or.

5

**2019ko
Ebaluazioa**

7.-11.
or.


6

**2020ko
Ekintza Plana**

12.-13. or.

- **Lehiaren Euskal Agentziari** buruzko 2012ko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen arabera:
 1. Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA) administrazio-**erakunde autonomo** bat da, politika ekonomikoaren eta lehiaren defentsaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari adskribatua, **berezko nortasun juridikoa** eta jarduteko gaitasun osoa dituen eta bere eginkizunak betetzeko sortua dagoena.
 2. Bere jarduera garatzen du **autonomia organiko eta funtzionalarekin**.
 3. Bere jarduera zuzenbide publikoaren mende dago eta **1/2012 Legeak**, erakunde autonomo administratiboen xedapenek eta haiek garatzen dituzten arauak gobernatzen dute.
 4. Era berean, bere eginkizunak **objektibotasunez** beteko ditu, antolamendu juridikoaren menpe egongo da eta administrazio publikoen eta eragile ekonomikoen **erabateko independentzia** izango du bere helburuak betetzeko.
 5. Politika ekonomikoaren eta lehiaren defentsaren **ardura duen sailak** Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarraibideak ezartzen parte hartzen du. Jarraibide horiek agintaritza horren urteko jarduera-programan jasoko dira.

- **LEAren lehen plan estrategikoa** 2017an onartu zen, hausnarketa eta plangintza estrategikoko barne-prozesu baten ondoren.
- Hauek dira Plana lantzeko **arrazoi nagusiak**:
 - Erakundeari norabide-zentzua emango dion hausnarketa eta plangintza estrategikoko ariketa bat egiteko nahia, **erakundea sendotzeko eta indartzeko etapa** baten oinarri gisa.
 - **Kudeaketa estrategikorako tresna berri bat** izateko beharra, argi eta garbi definituko dituen epe ertainerako helburuak eta lehentasunezko jarduera-ildoak, eta LEAren jardueraren jarraipena, ebaluazioa, doikuntza eta hedapena erraztuko duena.
- Plan Estrategikoak **2018-2022 urteak hartzen ditu**.
- Urtero, ekitaldiaren amaieran, ebaluazio-txosten bat egiten da. Txosten horretan, **aurreko urteko mugarri eta lorpen nagusiak** jasotzen dira, bai eta **helburu estrategikoaren araberako aurrerapen-maila** ere.
- Era berean, **2020 Ekintza Plana** definitzen da, Plan Estrategikoaren ezarpenari jarraipena emateko.



LEAren MISIOA edo XEDEA

“Merkatuko lehiaren eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez; eta, horretarako, zehatzeko, sustatzeko eta aurkaratzeko eskumenak eta irizpen eta kontsultarako eta arbitrajerako eskumenak baliatuko ditu.”

IKUSKERA edo ETORKIZUNEN HELBURUA

Plan horren esparruan, LEAk honako hau lortu nahi du: "Erakunde errespetatua eta aitortua izatea, bere erabilgarritasunagatik, zorrotasunagatik, proaktibitateagatik, gardentasunagatik eta independentziagatik, EAEko lurraldeko lehiaren defentsan eta sustapenean eta merkatu irekiago eta lehiakorrago baten alde egindako lanagatik".

<i>Helburu Estrategikoak (HE)</i>	<i>Jardun-ildo Estrategikoak (JE)</i>
HE1. Erakundea sendotzea eta ezagutaraztea	<p>JE 1.1.I Erakundearen ikusgaitasuna eta sinesgarritasuna</p> <p>JE 1.2. Lehiaren agintaritzekin eta haiekin lotutako erakundeekin lankidetzan aritzea</p>
HE2. Lehia aldezte merkatuetan	<p>JE 2.1. Merkatuen zaintza proaktiboa</p> <p>JE 2.2. Zehapen-prozedura benetan aplikatzea</p>
HE3. Lehiaren sustapena bultzatzea	<p>JE 3.1. Merkatuaren ezagutza sakontzea</p> <p>JE 3.2. Lehiaren kultura sustatzea</p> <p>JE 3.3. Arauen arloko zaintza eta sustapena</p> <p>JE 3.4. Aholkularitza-organo gisa jardutea</p>
HE4. Bikaintasun operatiboa lortzea	<p>JE 4.1. Teknikari taldea profesionalizatzea eta espezializatzea</p> <p>JE 4.2. Kudeaketa aurreratua eta berritzailea</p>

- Plan Estrategikoan aurreikusitako 38 jarduketan % **94,7ko aurrerapena** gertatu da.
- **114 espediente** landu dira 2019an, aurreko urtean baino % 10 gehiago.
- Ustez lehiaren aurkakoak diren **30 jokabide eta lehia sustatzeko 84 espediente** aztertu dira.

2018-2022
Plan
Estrategikoaren
2019ko
ebaluazioa

Jarduketa garrantzitsuak

HE 1.
*Erakundea
sendotzea eta
ezagutaraztea*



Presentzia aktiboa esparru ekonomikoan,
harreman instituzional estu baten bidez.



Lehiaren arloan garrantzitsuak diren foroak antolatzea eta horietan aktiboki parte hartzea: Forum Europa; Lehiaren Jardunaldi Nazionalak; IVAPeko Kontratazioa ikastaroa; Lehiaren konplimenduari buruzko lan-gosaria; Ganberaren ostiralak; AIGei buruzko EHUren jardunaldia, eta abar
Proiektu bateratuak MLBNrekin, ELGArekin, UNCTADekin eta Europako Batzordearekin.



LEKen ebazpena, Gipuzkoako autobusei buruzko espedientean ezarritako zehapenen motibazioak direla eta.



Zenbait sektoreren gaineko azterketa; garrantzitsuenak: zerbitzu profesionalak, kontratazio publikoa, markak eta merkataritza-banaketa eta osasun-laguntzako aseguruak.



Bi zehapen-espediente abiaraztea

HE 2.
*Lehia aldezea
merkatuetan*

HE 3.
*Lehiaren
sustapena
bultzatzea*



LEKen 16 ebazpen, sustapenaren alorrean



EITari buruzko Zuzenbidea aurkaratzea



Lehiaren alorreko Konplimendu Gida argitaratzea (lehenengo Estatuan)



Sustapen aktiboa: **27 kontsulta eta araei buruzko 11 txosten**



Bi plaza berri onartzea Idazkaritza Orokorrean



Antolaketa-ekimenak abian jartzea, eremu hauetan:

- lizitazio publikoa;
- digitalizazio-prozesua;
- webgunea;
- datuak babesteko politika.

HE 4.
*Bikaintasun
operatiboa
lortzea*

**Helburu
estrategikoa**

HE1. Erakundea sendotzea eta ezagutaraztea

**Ildo
estrategikoa**

1

**ERAKUNDEAREN
IKUSGAITASUNA ETA
SINESGARRITASUNA**

2

**LEHIAREN
AGINTARITZEKIN ETA
HAIEKIN LOTUTAKO
ERAKUNDEEKIN
LANKIDETZAN ARITZEA**

**Lehiaren alorreko bi ekitaldi antolatzea eta LEAk
bost foro inportantetan parte hartzea**

**Presentzia aktiboa esparru ekonomikoan,
harreman instituzional estu baten bidez**

Lankidetza lehiaren zenbait agintaritzarekin eta
lotutako erakundeekin, eta **baterako proiektuak**
MLBN, ELGA, UNCTAD eta Europako
Batzordearekin


**2018ko
jarduketa
garrantzitsuak**

**Helburu
estrategikoa**

**Ildo
estrategikoak**

**2019ko
jarduketa
garrantzitsuak**

HE2. Lehia aldeztea merkatuetan



Ustez lehiaren aurkakoak izan diren 30 jokabide aztertzea

Bost **merkatu sentikor**, edo kolusiorako joera dutenak, identifikatzea.

Sei auzi MLBNri esleitzea, 1/2002 Legea aplikatuz

77 informazio-errekerimendu

Bi zehapen-espeditate abiaraztea


Ebazpen osagarria Gipuzkoako autobusen auzian, zehapenen motibazioa eta segurtasun juridikoa indartzen duena

15 espeditate **zaintzapean** edo **administrazioarekiko auzien fasean**

**Helburu
estrategikoa**

HE3. Lehiaren sustapena bultzatzea

**Ildo
estrategikoa**



Parte hartzea lehia sustatzeko 84 espedientetan, haien artean garrantzitsuenak: kontratazio publikoari buruzkoak, araei buruzko txostenak, garraioak eta abar.

Lehentasunezko sektoreak identifikatzea, azterlanen bitartez: banku-fundazioak, hiletta-sektorea, trenbide-sektorearen liberalizazioa eta abar.

Lehiaren alorreko Konplimendu Gida lantzea eta **kontsulta publiko bat** abiatzea

Arauei buruzko 11 txosten onartzea

Aholkularitza-organo gisa jardutea, eremu publikoko eta pribatuko eta patronalen eta elkarleen sektoreko **28 entitateri aholkularitza** eskainiz

Euskadiri eragiten dioten enpresa-kontzentrazioei buruzko txostena

Lankidetzak ikastetxeekin eta unibertsitateekin.

EITari buruzko Euskadiko 200/2019 Dekretua aurkaratzea

Lehian graduatutako emakumeentzako Mentoring Programan parte hartzea.

2019ko jarduketa garrantzitsuenak

*Helburu
estrategikoa*

HE4. Bikaintasun operatiboa lortzea

*Ildo
estrategikoak*

1

**TEKNIKARI TALDEA
PROFESIONALIZATZEA
ETA ESPEZIALIZATZEA**

2

**KUDEAKETA
AURRERATUA ETA
BERRITZAILEA**

Inbertsioak, profesionalen **jakintza hobetzeko**;
horretarako, **215 prestakuntza-ordu** eman dira

Onartzea **bi plaza berri** LEAren Idazkaritza Orokorrean

Zehapen-prozedura **digitalizatzeko-
prozesuaren** hasiera

Web-orriaren hobekuntza

*2019ko
jarduketa
garrantzitsuak*

- 2020an, LEAk planteatu du bere Plan Estrategikoaren barruan abian jarritako **jardun-ildoei jarraipena** ematea, lehia **defendatzeko** eta **sustatzeko** jardueren arteko etengabeko oreka bilatuz eta uneoro **legezkotasun-, erabilgarritasun-, zorroztasun-, proaktibotasun-, gardentasun- eta independentzia-printzipioen** arabera jardunez.
- Hauek dira LEAren 2020rako ekintza-planaren lehentasunak, Plan Estrategikoa eta helburu estrategiko bakoitza ezartzen jarraitzeko:
 1. EA Eren eremuan, ekintza instituzionalari jarraipena ematea, **enpresa eta operadore ekonomikoetara hurbilduz, eta ekintza berriak sustatzea lehiaren beste agintaritza batzuekin eta lotutako erakundeekin lankidetzan**, bai estatuan bai nazioartean, erakundea eta haren jarduera finkatzen eta ikusarazten jarraitzeko urrats gisa.
 2. Lehiakortasunaren aurkako jarduerak detektatzeko **baliabide propioak indartzea**, eta arreta berezia jartzea **talde ahulei eragiten dieten merkatu/sektore sentikorretan**.
 3. **Lehia aktiboki sustatzea**, eta, horretarako, eragile ekonomikorekin lankidetzan aritu, gida praktikoak egin eta zabalkunde-jarduera berriak programatu, unibertsitateekin eta beste eragile batzuekin lankidetzan.
 4. **Kudeaketa profesionalizatua eta berritzailea sustatzea**, barne-prestakuntza eta *know how* delakoa indartuz, eta digitalizazioaren bidez.

- 2020ko Ekintza Planak **jarduera berri nabarmenak** txertatzen ditu lau helburu estrategikoetan.

✓ **Lau helburu estrategikoetan aurreikusitako jarduera berriak**

Jarduketa garrantzitsuenak

HE 1.
Erakundea sendotzea eta ezagutaraztea



Enpresa eta operadore ekonomikoetara hurbiltzea



Lankidetzeta sustatzea lehiaren beste agintaritza batzuekin eta lotutako erakundeekin.



Estatuko eta nazioarteko kongresu eta foroetan aktiboki parte hartzea



ECN+ Zuzentarauaren transposizioa aztertzea, bai eta horrek LEAren eskumenetan duen eragina ere



Lehiakortasunaren aurkako jarduerak detektatzeko baliabide propioak indartzea



Kontratazio publikoko kolusio-praktikak aztertzea



Lehiaren defentsa, talde ahulei eragiten dieten merkatu/sektore sentikorretan

HE 2.
Lehia aldeztea merkatuetan



Sektore ekonomiko garrantzitsuei buruzko azterlanak egitea



Administrazio-erregulazio onari buruzko gida bat egitea



Kontratazio txikia aztertzea



Ikastaroak edo kolaborazioak egitea **unibertsitateekin, ikastetxeekin** eta beste entitate batzuekin



LEAko profesionalen eta langile berrien prestakuntza planifikatzea.



Digitalizazio-prozesua amaitzea



LEAren artxibategia birkonfiguratzea



Web-orri eta salaketa-kanal berriak

HE 4.
Bikaintasun operatiboa lortzea

**2018-2022
Plan
Estrategikoa
ren 2020ko
Ekintza
Plana**

HE 3.
Lehiaren sustapena bultzatzea



Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

Plan Estrategikoa 2018-2022

2019ko Ebaluazioa eta 2020ko Ekintza Plana